  3. Respetémonos y cuidémonos mutuamente, para que podamos disfrutar y gozar en fiestas. Sin causar molestias a nadie. ¡Está en nuestras manos que las fiestas sean del gusto de todas las personas! Además, para poder garantizar el cuidado del municipio, respetemos el entorno natural y el urbano.
  4. No está permitida la venta de petardos, cohetes o similares y lanzarlos.
  5. Se recuerda que está prohibida la venta de alcohol a menores de 18 años y la venta de alcohol por menores de 18 años.
  6. Si bebes, no conduzcas.
  7. Utiliza el transporte público. Consulta los servicios especiales de trenes nocturnos en la web [www.euskotren.eus](http://www.euskotren.eus).
- ### 8. SOKAMUTURRA
- \*Recorrido: Maala y las calles San Frantzisko, San Bartolome, Errosario, Santa Ana y San Ignazio.
- \*Días 25: 8:00-11:00.
- \*Día 27: (desde el King-Kong) 8:00-11:00.
- \*Día 28: 8:00-11:00.
- \*Tráfico en el recorrido: retirar los coches para las 6:00. NO habrá carga y descarga hasta que terminen las sokamuturras.
- \*Está terminantemente prohibida la participación de menores de 16 años en las sokamuturras.**
9. No se podrán realizar entrenamientos de goitibeheras. Durante la prueba, el tráfico permanecerá cerrado en San Roke-Arregitorre-Erretsundi.
- ### 10. TRÁFICO EN LA CIUDAD, DURANTE LAS FIESTAS:
- Cerrado durante todas las fiestas.
11. Prohibido hacer torres y saltar desde las alturas, y todo acto que pueda poner en peligro la integridad física de nadie.
  12. Usa los servicios públicos para mantener las calles limpias.
- PRESTA ATENCIÓN a tu bolso, cartera y teléfono móvil.**

# GIZON PAREGABEA

## UN HOMBRE EXCEPCIONAL



2007ko abuztuaren 13a da. Elgoibarko herria prest dago pertsona kutun bati, pertsona maite bati, hamarkada askoan, bere jarduera amaiezinari esker, herrikideen bizimodua alaitu zuen gizon bati azken agurra egiteko. Jose Zubiaurre Leiaristiren hileta elizkizuna eta ondorengo ehorzketa dira, hain zuzen, 85 urtean milaka elgoibartarren adiskidetasuna eta estimua lortu zituen pertsonarena. Paradoxa bada ere, Udal Musika Banda, bere Musika banda, ez dago agur-ekitaldi horretan. Bandako kideen hiru heren baino gehiago udako oporretan daude, herritik kanpo. Banda kanpoan dagoenez, txistulari talde txiki batek azken agurra egingo diogu Maisuari.

Baina istorio guztiak bezala, honek ere izan zuen hasiera. Eta 1922ko ekainaren 5ean hasi zen: Egun hartan, San Bartolome kaleko 5. zenbakian, haur bat jaio zen, eta Jose jarri zioten izena. Gurasoak, berriz, Narciso eta Candelaria ziren. Senar-emazteen bigarren semea zen. Bera baino lehenago Emiliana jaio zen, eta ondoren, Mari eta Vicente. Haiek guztiak “Balle” ezizenarekin ezagutzen zituzten. (Ballegoitia baserriarengatik, handik baitzetorren aita).

Es el 13 de agosto de 2007. El pueblo de Elgoibar se dispone a dar el último adiós a una persona entrañable, querida, un hombre que durante décadas, con su incesante actividad, alegró la vida de sus paisanos. Es el funeral y posterior entierro de José Zubiaurre Leiaristi, persona que a lo largo de 85 años supo granjearse la amistad y la estima de miles de elgoibarreses. Paradójicamente, la Banda de Música Municipal, su Banda de Música, no está en ese adiós. Más de tres cuartas partes de sus componentes se encuentran de vacaciones estivales, fuera de la localidad. En ausencia de la Banda, un pequeño grupo de txistularis damos el último agur musical al Maestro.

Pero como todas las historias, ésta también tiene su principio. Y comienza el 28 de junio de 1922; ese día, en la calle San Bartolomé nº 5, nació un niño al que pusieron de nombre José, siendo sus padres Narciso y Candelaria. Era el segundo hijo del matrimonio; anteriormente había nacido Emiliana y posteriormente lo hicieron Mari y Vicente. A todos ellos se les conocía con el sobrenombre de “Balle” (por el caserío Ballegoití, de donde descendía el progenitor).

Gutxinaka, haurra hazten joan zen, eta herriko beste mutiko asko bezala, zazpi urte zituela, solfeo ikasten hasi zen organo-jole eta Musika Bandako zuzendari zen Ignacio Bereciartua jaunarekin. Klase serioak ziren, denbora gutxi izaten zen umore kontuetarako eta diziiplina handia. Bereciartua berehala ohartu zen ume hark ahots bikaina zuela. Horrexegatik, handik bi urtera, bederatzi urterekin, tiple sartu zen Parrokiako Abesbatzan. Josek sarritan esaten zigun, bederatzi eta hamabost urte bitartean, Parrokian egin ziren hileta eta bederatziurren guztietan kantatu zuela. Baimen berezia zuen eskolatik irten eta elizara joateko, nahiz eta elizkizuna eskola orduetan izan. Hamabost urte egin zituenerako, baina, ahotsa aldatu egin zitzaion, eta ezin izan zuen tiple izaten jarraitu. Dena dela, norbaitek pentsatzen baldin badu aldaketa horrekin koruko jarduera bukatuko zuela, oso oker dago. Beste berrogei urte jarraitu zuen Parrokiako Abesbatzan, bere tenore ahots eder eta tinbratuarekin.

Itzul gaitezen, orain, 1936ko Urteberri Egunera: Josek, pozez zorutzen, debuta egin zuen Musika Bandan bonbardinoarekin. Hamahiru urte zituen. Bata bestearen ondotik etorri ziren kontzertuak eta dantzaldiak, azken horiek igande eta jaiegun guztietan. Zer gutxi imajinatzen zuen orduan, hilabete gutxiren buruan, dena goitik behera aldatuko zela! Josek, mobilizatu ez zituzten musikari gutxi batzuekin batera, bonbardinoarekin giroa animatzen jarraitu zuen, egoera hark ematen zituen aukera eskasez baliatuta. Pobrezia eta tristezia handiko garaiak. Musika adabaki txiki bat izan zen urte latz haietan. Baina bandaren abentura hasi besterik ez zen egin.

Orain arte, gure gizonak egiten zituen bi jarduera aipatu ditugu, biak ala biak musikaren arlokoak: Parrokiako Abesbatzako kantari eta Musika Bandako kide. Baina *Ballek* zaletasun asko zituen. Bata, esku-pilota zen. Ikaragarri gustatzen zitzaion kirol hori, eta gogotsu aritzen zen libre zuen uneetan. 17 urte zituela, bi pilota partida jokatu zituen San Bartolome jaietan profesionalekin batera; artekariak eta apustuak izan ziren tartean: bi partidak irabazi zituen. Beste batzuetan ere, pilotari entzutetsuak izan zituen aurrez aurre, hala nola, Arriaran II.a, 1955eko eta 1956ko buruz buruko txapelketetan bi txapel irabazi zituena. Zalantzarik gabe, pilotari bikaina zen.


Beste lagun batzuekin batera, Accion Catolicako dantzari taldeko kide izan zen. Talde horrekin inguruko herri askotara joan izan ziren, dantzen errepertorioa erakustera. Dantzariak Ansola anaien txistuaren doinuarekin egiten zuten dantza, eta Josek musika oinarri paregabea zuenez, txistua jotzen ere ikasi zuen Felix Ansolarekin.

Poco a poco, el niño va creciendo y como tantos otros de la localidad, a los siete años comienza a aprender solfeo con D. Ignacio Bereciartua, organista y director de la Banda de Música. Clases serias, con poco tiempo para el humor y mucha disciplina. Bereciartua se percató inmediatamente de la excelente voz de aquel niño, por lo que dos años más tarde, con nueve, ingresa como tiple en el Coro Parroquial. José nos comentaba a menudo cómo, desde los nueve hasta los quince años, cantó en todos los entierros y novenarios que se celebraban en la Parroquia. Tenía permiso especial para salir de la escuela y acudir a la iglesia aunque fuera en horario lectivo. Para los quince años le cambió la voz, por lo que no pudo continuar como tiple. Sin embargo, si alguien piensa que con dicho cambio se produjo el fin de su actividad coral, está muy equivocado. Continuó en el Coro Parroquial otros cuarenta años más, con su hermosa y bien timbrada voz de tenor.

Situémonos ahora en el día de Año Nuevo de 1936: José, muy feliz, debutaba en la Banda de Música con el bombardino. Tenía trece años. Los conciertos y los bailables, éstos últimos todos los domingos y festivos, se suceden. ¡Qué poco se imaginaba entonces que pocos meses más tarde todo iba a cambiar y de qué manera! José, junto a unos pocos músicos que no fueron movilizados por la guerra, continuó animando con su bombardino dentro de las escasas posibilidades que la situación permitía. Tiempos de penuria y mucha tristeza. La música era un pequeño parche en aquellos pesarosos años. Pero su aventura bandística no había hecho más que comenzar.

Hasta ahora hemos citados dos actividades de nuestro hombre, ambas musicales: cantor del Coro Parroquial y miembro de la Banda de Música. Pero *Balle* tenía otras muchas inquietudes. Una era la pelota a mano, deporte que le entusiasmaba y al que se dedicaba con tesón en sus ratos libres. Con 17 años, en 1939, jugó dos partidos de pelota durante las fiestas de San Bartolomé junto a profesionales, con corredores y apuestas de por medio: ganó ambos partidos. En otras ocasiones le tocó también enfrentarse a pelotaris de postín, como Arriaran II, ganador de dos txapelas en las finales manomanistas de 1955 y 1956. Vamos, que indudablemente era un excelente pelotari.

Junto con otros compañeros fue también miembro del grupo de dantzaris de la Acción Católica. Con ese grupo se desplazaron a numerosas localidades vecinas donde mostraban su repertorio de bailes. Los dantzaris bailaban al



*Jose, lehenengoa eskuinetik hasita. Arriaran II.a, ezkerretik hasita bigarrena  
José, primero por la derecha. El segundo por la izquierda es Arriaran II*

Besterik? Ba, bai, oraindik asko dago kontatzeko. 18 urterekin gitarra jotzen ikasten hasi zen bere kabuz. Hasierako asmoa zen kantarien eta taldeen laguntzaile hutsa izatea, baina hiru urte geroago, gure gizonaren etorkizuna baldintzatu zuen gertakari bat jazo zen: parte hartu zuen jaialdietako batean, Jose de Azpiazu Iriarte maisu oinatiarra ezagutu zuen. Azpiazu gitarra-jole ezaguna zen mundu guztian, eta, gerora, bere musika karrera guztia egin zuen Suitzan, Lausanako eta Genevako kontserbatorioetako maisu moduan. Azpiazu maisuak Oñatira joatera gonbidatu zuen klaseak hartzera. Esan eta egin. Zortzi urtean, Jose Azpiazuren etxera joan zen aldizka, eta, han, instrumentuaren sekretuak ikasi zituen. Horrela hasi zen gitarra kontzertuak ematen. Antzoki eta taula askotan aritu zen. Azpiazuk berak gomendatu zion harmonia ikasketak sakondu zitzala; irakaslea ere proposatu zion: Aita Madina, hain zuzen, hura ere oñatiarra. Aita Madina erlijioso laterandar eta konposatzaile bikainak, beste lan zoragarri batzuen artean, Euskal Herriko abesbatza guztien erreperatorioan jasota dagoen harribitxia sortu zuen: “Aita Gurea” paregabea.

son de los txistus de los Hnos. Ansola y como José tenía una excelente base musical, aprendió también a tocar el txistu con Félix Ansola.

¿Alguien da más? Pues todavía queda mucho por contar. Con 18 años empezó a aprender a tocar la guitarra de forma autodidacta; su idea inicial era la de ser mero acompañante a cantores y grupos. Pero tres años más tarde se produce un hecho que iba a condicionar el futuro de nuestro hombre: en uno de los festivales a los que había acudido, conoce al maestro oñatiarra D. José de Azpiazu Iriarte, guitarrista de fama mundial y que poco más adelante desarrollaría toda su carrera musical en Suiza como profesor en los Conservatorios de Lausana y Ginebra. El Maestro Azpiazu le invita a que vaya a Oñati a recibir clases suyas. Dicho y hecho. Durante ocho años, José acudió periódicamente al hogar de Azpiazu, donde aprendió los secretos del instrumento. Dio comienzo así su faceta de concertista de guitarra, actuando en numerosos teatros y escenarios. El mismo Azpiazu le recomendó que ampliara sus estudios de armonía; incluso le propuso el profesor: nada menos que Aita Madina, también oñatiarra.



Eta gitarraren harira, 1958an izan zen gertakari bat aipatuko dut. Radio Eibar emisorak, ondoko herrikoak, “*Haga Vd. lo que sepa*” izena zeraman lehiaketa deitu zuen. Lehiaketa hartara 80 artista aurkeztu ziren animoz beterik. Kantariak, akordeoi-joleak, piano-joleak, otxoteak, trikitilariak, abesbatzak... izan ziren bertan. Hamabost lagun aukeratu zituzten jendez lepo zegoen Rialto zineman egin zen final handirako. Eta nor izan zen irabazlea, lehenengo saria lortu zuena? Irakurle azkarrek, honezkerok, imajinatuko zuten. Hala izan zen: Jose Zubiaurre lehiaketako garaile izendatu zuten, ikusleen txalo zaparradaren artean. Entzuleak txunditurik utzi zituen gitarrarako zuen artearekin. Eta, azkenik, *Balle* gitarra-jolearen biografiarekin bukatzeko, esango dut Erromako Ricordi musika-argitaletxeak, duela urte asko, munduko gitarra-jolerik hobereenen zerrenda argitaratu zuela, herrialdeen arabera sailkaturik. Eta han, alfabetoaren hurrenkeran, Narciso Yepesen atzetik, Jose Zubiaurreren izena ageri da betiko.

Eta nola utzi aipatu gabe, *Petachos* artista-taldearen barruan, aktore moduan, egin zituen lan azpimarragarriak. Antzezlanak, zarzuelak e.a. eskaintzen zituen taldea zen, elgoibartar gogotsu batzuek osatutakoa. Eta hantxe aritzen zen Jose kantuan eta taula gainean antzezten. Bakarleri bikain gisa ere gailendu zen. Haren bakarrizketek ikusleen barre-argarak eragiten zituzten; ikusleak barrez lehertzen ziren. Haren jarduerak arrakasta izugarria izaten zuten beti.

Eta bizitzan dena musika eta antzerkia izaten ez denez, urte batzuk lehenago, 1949an, Tere Lodosorekin ezkondu zen Jose. Ezkontza horretatik hiru seme jaio ziren: Jose Angel, Luis Mari eta Víctor. Hiruerek lotura sendoa izan zuten musikaren munduarekin. Berrogeiko hamarkadan Estarta y Ecenarron (Sigma) hasi zen lanean, erretiroa hartu zuen arte.

Gogoan dudan Joserren hasierako irudia oso gizon serioarena da. Etxean berezitasun hori aipatzen nuenean, denek batera esaten zidaten guztiz kontrakoa zela: umore handiko gizona, burutsua, gatz eta piper handikoa, berebiziko sinpatia zuen “*salaua*”. Hurrengo urteetan, zorte handia izan nuen gauza ugari bizi izan nituelako berarekin. Ikusi ahal izan nuen nolakoa zen bere izaera. Txikia zen, baina, sarritan esaten zuen moduan, “*ez da 1,80 neurtu behar bizitzan zerbait izateko*”. Hori arrazoia!

Bandan bonbardinoarekin jarraitu zuen. Bestalde, Bereciartuak Bandako zuzendari izateari utzi zion gerran, eta haren ostean banda zuzendu zutenak, hurrenez hurren, Ignacio González Bastida Julio Pérez-Cortes eta Julian Iriondo

Aita Madina, religioso lateranense y extraordinario compositor creó, entre otras maravillosas obras, esa joya musical que figura en el repertorio de todos los coros de Euskal Herria: la simpár “Aita Gurea”.

Y al hilo de la guitarra, narraré un evento ocurrido en 1958. La emisora Radio Eibar, de la localidad vecina, convocó un concurso titulado “*Haga Vd. lo que sepa*”. A dicho concurso se presentaron 80 animados artistas. Había allí cantantes, acordeonistas, pianistas, ochotes, trikitrilaris, coros... Fueron quince los seleccionados para la gran final que se celebró en un abarrotado Cine Rialto. ¿Y quién fue el ganador, el que obtuvo el primer premio? El avispado lector ya lo habrá imaginado. Efectivamente, José Zubiaurre se proclamó vencedor del concurso ante los atronadores aplausos del público. Dejó sorprendido al auditorio con el arte de su guitarra. Y finalmente, para terminar esta semblanza del *Balle* guitarrista, indicaré que la editorial musical Ricordi, de Roma, publicó hace años un listado de los mejores guitarristas del mundo clasificados por países. Y allí, en orden alfabético y tras Narciso Yepes figura para siempre el nombre de José Zubiaurre.

Y cómo no citar también sus destacados papeles como actor, dentro del grupo artístico *Petachos*. Éste era un grupo de entusiastas elgoibarreses que representaban obras de teatro, zarzuelas, etc. Y allí estaba José cantando y actuando en el escenario. Destacó también como consumado monologuista, monólogos que causaban la hilaridad del público, que se tronchaba de risa. Sus actuaciones tenían siempre un enorme éxito.

Y como en la vida no todo es música y teatro, unos años antes, en 1949, José contraía matrimonio con Tere Lodoso. Fruto de esa unión nacerían tres varones, José Angel, Luis Mari y Víctor, los tres muy vinculados al mundo de la música. En los años cuarenta comenzó a trabajar en Estarta y Ecenarro -Sigma- hasta su jubilación.

La imagen inicial que conservo de José es la de un hombre muy serio. Cuando comentaba en casa esta particularidad, todos unánimemente me hacían ver que era todo lo contrario: un hombre de gran humor, ingenioso, con mucha chispa y gracejo, un “*salao*” con una enorme simpatía. Los años sucesivos, en los que tuve la enorme suerte de compartir con él muchas vivencias, me mostraron con creces esa forma de ser suya. Era de baja estatura pero como él mismo repetía a menudo “*no hace falta medir 1,80 para ser alguien en esta vida*”. ¡Y qué razón tenía!



*Gitarra kontzertu batean*  
*En un concierto de guitarra*

izan ziren. Azken hau, Joserren kidea, zuzendari izendatu zuten 1952an.

Eta, azkenik, 1956. urtea iritsi zen, urte erabakigarria gure gizonaren bizitzan: urte hartan, Musika Bandako zuzendari izendatu zuten. Julian Iriondok, lan kontuak tarteko, kargua utzi zuen, eta Jose, 1956ko ekainaren ekainaren 20ko Udalbatzarraren akordioaren arabera, haren oinordeko izendatu zuten. Eta une hartan, alaitasunez... eta tristura sakonez beteriko bideari ekin zion. Eta arlo horretan Josek ohikoa zuen trebetasuna erakutsi behar izan zuen, zailtasunei aurre egiteko zuen berezko gaitasuna, berezko egokitasuna eta denak pozik edukitzeko ahalegina egiteko zuen ahalmena. Musika Bandarentzat oso gogorra zen garaia bizi izan zuen. Udalarekiko harremanak ez ziren samurrak. Eta Josek sarritan esaten zuen moduan, *"hogeita zortzi urte igaro nituen Udaletxeko eskailerak igotzen... eta hogeita zortzi urte jaisten"*. Udalak Bandarentzat izendatuta zuen diru-kopurua eskasa zen, ia ez zen instrumentu berririk erosten, behin eta

En la Banda sigue con el bombardino. Tras Bereciartua, retirado de la dirección de la Banda durante la guerra, continúan dirigiendo la misma sucesivamente Ignacio González Bastida, Julio Pérez-Cortes y Julián Iriondo, compañero este último de José y nombrado director en 1952.

Y llega por fin el año 1956, año crucial en la vida de nuestro hombre: ese año es nombrado director de la Banda de Música. Julián Iriondo dejaba el cargo por motivos laborales y José, de acuerdo con el Pleno Municipal del 20 de junio de 1956, fue el designado para sucederle. Y en ese momento comenzó un camino lleno de alegrías... y profundas tristezas. Ahí es donde José tuvo que desplegar su proverbial mano izquierda, su innata habilidad para capear temporales, su saber estar y tratar de conformar a todos. Le tocó una época muy dura para la Banda de Música. Las relaciones con el Ayuntamiento no eran fáciles. Como José decía en muchas ocasiones *"me pasé veintiocho años subiendo las escaleras del Ayuntamiento... y veintiocho años bajando"*. La asignación municipal para la

berriz entzungor egiten zieten uniformeak erosteko eskaerei, hitz batean esanda, Banda gutxietsita zegoen (zer nolako alde egungo egoerarekin alderatuta!). Aitzitik, betebeharrak oso gogorrak ziren: kontzertu ugari, dantzaldiak urteko jaiegun guztietan (Garizuman izan ezik), prozesio asko, gaixoen Jaunartzea, Altzolan eta Mendaron egiten ziren ekitaldiak... Goardia Zibilaren kuartelean ere ematen zituzten kontzertuak. Horren guztiaren ondorioz, gutxitzen joan zen Bandako kideen kopurua, eta horrek funtzionamendu arazoak sortu zituen. Sarritan, Ansola anaien dei egin behar izaten zieten Markinara, Banda indartzera etor zitezten. Beste batean, Bandako sei kidek jatzana sortzea erabaki eta denek alde egin zuten. Oso trantze latza izan zen, eta gure gizonak aurre egin behar izan zion ahal izan zuen moduan. Egoera horretan, ez ziren asko izaten Bandan sartu eta bertako diziplina onartzeko erabakia hartzen zuten gazteak. Joseren hiru semeak salbuespena izan ziren: Bandan sartu ziren bata bestearen atzetik, eta hirurak klarinete-jole apartak izan ziren. Dena zen beharrezkoa, Banda pikutara joan ez zedin. Horretaz guztiaz gain, Bandako zuzendari zen aldetik, solfeo eskolak eman behar izaten zituen Udal Akademiaren. Eta hori gutxi balitz, milaka istorio gauzak are gehiago korapilatzeke.

Udako igandea. Dantzaldiak gaueko hamarretatik hamabietara. Dantzaldia bukatu eta, gauerdian, musikariak Akademiara joan ziren instrumentuak eramatera (garai hartan, Akademia egungo Kultur Etxearen beheko solairuan zegoen, Correoseko bulegoen ondoan; goiko solairuetan eskola publikoetako maisuak bizi ziren). Musikariak Akademiara iritsi ziren, eta gazte batzuei ez zitzaizen otu jotzen hastea baino gauza hoberik. Julio Bueno (ardotegiko Julioaren aita) ere hantxe zegoen. Tronpeta-jole bikaina zen eta parranda sana egin zalea. Gure Julio arazoak zituen erre ahoskatzeko, erremerea zen. Adina gorabehera, *Jazz Session* inprobisatuarekin bat egin zuen. Zarata eta zalaparta izugarriak ziren. Maisuek, haserre bizian, serenoiei dei egin zieten. Eta hara non agertu ziren bi gau-zainak. Danba-danba, jo zuten atea. "*Laga nigi*", eta Julio atea ireki zuen: "*Zeg gegtatzen da?*" eta serenoek: "*Zoratuta zaudete, ala zer!*" "*Ze ordu dira hauek zalapartaka ibiltzeko?*" Julio, trankil asko, tronpeta eskuineko eskuan hartuta, sereno biei begiratu eta, zirkinik ere egin gabe, esan zuen: "*Agteagentzat ez dago ogdugik*". Eta danba, muturrean eman zien atearekin. Eta gazteei esan zien: "*Segi mutilok, jagaitu jotzen*".

Biharamunean, goizeko zortzi eta erdietan, telefonoz deitu zuten Udaletxetik Sigmar: "*Esan Balleri, eguerdian irteten denean, Udaletxera etortzeko*". Eta beste behin ere,

Banda era escasa, las compras de instrumental nuevo prácticamente inexistentes, las solicitudes de compra de uniforme desatendidas sistemáticamente, en fin, la Banda estaba ninguneada (¡qué diferencia con la situación actual!). Frente a todo ello, las obligaciones eran severísimas: numerosos conciertos, bailables todos los festivos del año (excepto Cuaresma), pasacalles, muchas procesiones, Comunión de los enfermos, actuaciones en Alzola y Mendaro... hasta conciertos en el cuartel de la Guardia Civil. Como consecuencia de todo ello, el número de componentes de la Banda iba menguando, con la problemática que ello generaba para su correcto funcionamiento. Frecuentemente hay que llamar a los hermanos Ansola a Markina para que acudan a reforzar la Banda. En otra ocasión, seis componentes de la Banda deciden crear una orquestina y se marchan todos ellos; es otro trago difícilísimo que nuestro hombre tiene que capear como puede. En esta coyuntura no hay muchos jóvenes que decidan ingresar y asumir la disciplina de la Banda. Una excepción fueron los tres hijos de José: escalonadamente ingresaron en la misma, los tres magníficos clarinetistas. Todo hacía falta para que la Banda no se fuera al garete. A todo esto hay que sumar su obligación como director de la Banda de impartir clases de solfeo en la Academia Municipal. Y como añadido, mil y una historias para complicar todavía más las cosas.

Domingo de verano. Bailables de diez a doce de la noche. Terminan los mismos y a medianoche los músicos se desplazan a la Academia a llevar sus instrumentos (en aquellos años la Academia se encontraba en los bajos de la actual Casa de Cultura, junto a las oficinas de Correos; en los pisos superiores residían los maestros de las escuelas públicas). Llegan los músicos a la Academia y a varios jóvenes no se les ocurre otra cosa que ponerse a tocar. Allí estaba también Julio Bueno (padre de Julio el de los vinos), excelente trompeta y amante de la juerga sana. El bueno de Julio (nunca mejor dicho) tenía problemas para pronunciar la erre; él decía siempre "ege". A pesar de su edad, se incorpora a la improvisada *Jazz Session*. El ruido y el escándalo son monumentales. Los maestros, muy enfadados, llaman a los serenos. Y allí se presentan los dos guardias nocturnos. Pam, pam, suena la puerta. "*Dejagme a mi*" y Julio abre la puerta: "*¿qué ocuge?*" y los serenos: "*¡¿Estais locos o qué?!*" "*¡¿qué horas son estas para armar este escándalo?!*" Julio, tranquilamente, con su trompeta en la mano derecha, mira a los dos serenos y afirma rotundamente: "*Para el agte no hay horas*". Y pumba, les da con la puerta en las narices. Y dirigiéndose a los jóvenes: "*venga chavales, a seguir tocando*".



1972ko Errege Eguna  
Banda de Reyes de 1972

eskaileretan gora, aurreko gaueko gertakizunengatik, alkatearen errieta entzutera. Eta Jose gizajoak, ekaitzari aurre egin ezinik, ikasleen ordezkari gisa, eta gehiago ez zela gertatuko hitzeman zuen. Eta berriro ere eskaileretan behera...

Baina hauxe aipatuko nuke, Joseren distira agerian utzi zuen gertakari bat, betiereko aitortzea eta ospea eman zion gertakari bakar bat aipatzekotan. Hirurogeita hamarrek hamarkadako hasierako urteak ziren. Goizetik gauera, ez zen inor Bandaren dantzaldi jendetsuetara joaten. Instant batean aldatu ziren jendearen ohiturak. Dantzalekuak indarrez sartu ziren herri guztietako bizimoduan, eta, jotzen jarraitzen zuten arren, lau bat mutiko eta agoazil galduren bat besterik ez ziren joaten dantzaldietara. Udalek ikusi zuten bandek egiten zuten lan nagusiak ez zuela zentzurik jadanik. Zinegotzietatik bost axola kontzertuak. Ondorioa: Banda ugari desegin, deuseztatu, desagerrarazi zituzten Udalek. Soraluzek, Debak,

Al día siguiente, a las ocho y media de la mañana, llamada telefónica del Ayuntamiento a Sigma: *“decidle a Balle que cuando salga al mediodía se pase por el Ayuntamiento”*. Y otra vez, escaleras arriba, a oír la bronca del alcalde por los sucesos de la víspera. Y el pobre José capeando la tormenta como puede, excusando a sus pupilos y con promesas de que nunca más volverá a ocurrir. Otra vez escaleras abajo...

Pero si tengo que señalar un único hecho donde José Zubiaurre brilló como nadie, donde sólo por ello debería ser reconocido y recordado permanentemente, lo cito a continuación. Estamos en los primeros años setenta. De la noche a la mañana, a aquellos multitudinarios bailables de la Banda ya no acude nadie. En un suspiro cambiaron las costumbres de la gente. Las salas de fiesta irrumpieron con fuerza en la vida local de todos los pueblos y a los bailables, que continúan sonando, solo acuden cuatro chiquillos y algún despistado alguacil. Los Ayuntamientos ven que la principal labor que desarrollaban las bandas ya no tiene razón de ser.

Arrasatek e.a. ikusi zuten haien Musika Bandak, kulturaren benetako enbaxadoreak, besterik gabe desagertu zirela. Herri tristeak; izan ere, Bandaren doinu alaia ez zen herrietako kale eta plazetan entzuten.

Eta Elgoibar ez zen salbuespena izan. Behin, Jose Sigmako lanpostuan zegoela, zinegotzi bat hurbildu zitzaion, eta, animoz, hauxe esan zion: *“Jose, hemendik gutxira, lasai biziko zara”*. Harriturik, zera erantzun zion: *“Zergatik esaten didazu hori?”* Eta zinegotziak azaldu zion hurrengo Udalbatzarrean aztergai bat ageri zela, non honako hau esaten baitzen: *“Musika Banda desagitea”*. Jose Zubiaurre zur eta lur gelditu zen; inoiz ez zuen pentsatu une hori iritsiko zela. Balle tristuraz beterik zegoen. Musika Banda desagertu zitekeela pentsatzeak min izugarria egin zion. Baina berehala egin zion aurre. Eguerdi hartan, tailerretik irtetean, etxera joan baino lehen, Udaletxera jo zuen. Donostiako Casa Ervitarako txartel bat izan zen aitzakia (gastu xeheak, hau da, pitak, zotzak edo instrumentuentzako olioak Udalak sinatzen zuen txartel baten bitartez bideratzen ziren). Iristean, hauxe esan zuen: *“Ziurrenik, hau izango da hona txartela sinatzera natorren azken aldia. Uste dut Bandak ez duela hilabete hau egingo, gehienez ere, hurrengo. Hau desastre bat da, jendea falta zait, eta ezin dugu horrela jarraitu. Hauxe esaten dizuet: egun batzuetan, agur Bandari”*. Udaletxean hori entzun zutenean, Banda “berez” hilko zela aurreikusita, aztergai hori kendu zuten Udalbatzarren bilera-deiko zerrendatik. Jadanik ez zen beharrezkoa Banda deuseztatzea, berez desagertuko zen eta.

Aldi berean, Balle Bandako kide ohiei deitzen hasi zen, eta berriro ere jotzera joan zitezela erregutu zien. Juanito Eguren, Emilio Bores, Fernando Azpiazu, Julián Iriondo eta beste musikari apart batzuk Bandara itzuli ziren berriro ere. Hogeita lau partaide ginen, eta, handik gutxira, hogeita hamasei elkartu ginen. Bandaren kantitatea eta kalitatea handitu egin ziren. Aldi berean, Jose eta bere laguntzaile leial Jose A. Osoro “Katxo” Paco Salaverriarekin eta Felix Berguarekin jarri ziren harremanetan, hau da, “La Voz de España” eta “El Diario



Jose semeekin: Luis Mari, Jose Angel eta Victor  
José con sus hijos: Luis Mari, José Angel y Víctor

Los conciertos, a los ediles les importan un pepino. Consecuencia: numerosas bandas son eliminadas, disueltas por los Ayuntamientos, borradas del mapa. Soraluze, Deba, Arrasate, etc. ven cómo sus Bandas de Música, auténticos embajadores culturales, desaparecen sin más. Pueblos tristes, en los que no se oye el alegre sonido de la Banda por sus calles y plazas.

Y Elgoibar no fue una excepción. Un día, estando José en su puesto de trabajo en Sigma, se le acerca un concejal y animosamente le dice: *“José, dentro de poco, a vivir tranquilamente”*. Extrañado, le interpela: *“¿por qué me dices esto?”* Y el concejal le explica cómo en el siguiente Pleno municipal figura un punto donde dice “Disolución de la Banda de Música”. José Zubiaurre queda anonadado; nunca pensó que llegaría ese momento. Le embarga una tristeza infinita. Pensar que la Banda de Música puede desaparecer le causa un enorme dolor. Pero reacciona inmediatamente. Ese mediodía, al salir del taller y antes de ir a casa se dirige al

Ayuntamiento. La excusa es que le firmen un vale para Casa Erviti de San Sebastián (los gastos menudos como cañas, baquetas o aceite para el instrumento se cursaban con un vale que firmaba el Ayuntamiento). Al llegar comenta: *“Probablemente ésta sea la última vez que venga aquí a que me firméis el vale. Creo que la Banda no pasa de este mes, todo lo más del siguiente. Esto es un desastre, me falta gente y así no podemos seguir. Lo que os digo: en unos días, adiós a la Banda”*. Cuando en el Ayuntamiento oyeron esto, previendo que la Banda iba a desaparecer por “muerte natural”, eliminaron ese punto del orden del día en el Pleno. Ya no hacía falta disolver la Banda, ella misma desaparecería.

Simultáneamente, Balle comenzó a llamar a ex-componentes de la Banda con el ruego de que volvieran a tocar. Juanito Eguren, Emilio Bores, Fernando Azpiazu, Julián Iriondo y otros excelentes músicos más volvieron de nuevo a la Banda. De veinticuatro componentes que éramos pasamos en poco tiempo a treinta y seis. La banda creció en cantidad y calidad. Al mismo tiempo, José junto a su fiel colaborador José Aº

Vasco” egunkarietako berriemaileekin. Eskatu zieten oihartzun handia emateko Bandaren ekitaldi guztiei, goraiatzeko kontzertuak, lau haizeetara zabaltzeko Bandaren ekitaldi guztiak. Eta hala izan zen. Elgoibarko Bandak jasotzen zituen kritiken arabera, bazirudien Vienako Filarmonika zela. Kontzertu guztiak ziren apoteosikoak, arrakastatsuak, bikainak... Elgoibarko banda arrakastaz arrakasta zebilen. Eta, horrexegatik, Udala ez zen ausartu Banda desegiteko urratsa ematera. Gaur arte. Jose Zubiaurreri esker, gaur egun ere, osasun inbidiagarria duen Banda daukagu.

Jaime Arresek alkatetza eskuratu ostean, asko aldatu ziren gauzak. Klarinete-jotzaile izan zen bandan, eta bazekien arazoa zein zen. Uniformeak estreinatu, eta instrumentu ugari erosi ziren. Garai lasaia izan zen. Baina urteak aurrera zihoazen. 1981ean Josek urrezko ezteiak egin zituen zuzendari moduan, eta hori zela eta, omenaldi jendetsua egin zitzaion: Udalaren urrezko domina, meza nagusia Udalbatzarrarekin, elkarte askoren opariak, kontzertu berezia Odeon antzokian eta abar. Herriak gure gizonak egindako lan eskerga aitortu zuen.

Eta 1984an... agurra. Josek agur esan zion Musika Bandako lanari. Bizitza osoa eskaini zion. Esan zuen lasai zihoala, etorkizun oparoa ikusten zuelako Bandarentzat. Jose A. Osoro izan zen haren jarraitzailea, urte askoan zuzendariorde jardun ostean.

Eta itzul gaitezen hasierara. “Agur Jaunak” kantaren notak itzaltzen ari dira. Eta isiltasunez inguratutik, zerraldoa hil-autoan sartu dute. Joserren oroitzapena geldituko zaigu, Elgoibarrek Banda Musika handi bat izateko inor baino gehiago borrokatu zen gizon baten gomuta ahaztezina. Bandak eskaini zion eskelan hauxe irakurri zitekeen: “Beti izango zera gure bihotzetan”. Eskerrik asko, Jose maitea. Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, izan zinen, egin zenuen eta transmititu zenuen guztiagatik. Agur, Maixu.

TXOMIN MUJIKA

Osoro “Katxo”, contactaron con Paco Salaverría y Félix Bergua, corresponsales de los periódicos La Voz de España y El Diario Vasco. Les pedían que dieran bombo y platillo a todas las actuaciones de la Banda, que magnificaran los conciertos, que difundieran ampliamente todos los actos de la Banda. Y así fue. La Banda de Elgoibar recibía críticas como si de la Filarmónica de Viena se tratara. Todos los conciertos eran apoteósicos, triunfales, brillantes... La Banda elgoibarresa caminaba de éxito en éxito. Y como consecuencia, el Ayuntamiento no se atrevió a dar el paso de la eliminación. Hasta hoy. Gracias a José Zubiaurre continuamos en la actualidad con una Banda de salud envidiable.

Con la llegada de Jaime Arrese a la alcaldía cambiaron muchas cosas. Había sido clarinete de la Banda y entendía la problemática. Se estrenaron uniformes y se adquirieron numerosos instrumentos. Fue una época de tranquilidad. Pero los años pasaban. En 1981 se cumplían las Bodas de Plata de José como director; por ello, se le tributó un multitudinario homenaje: Medalla de Oro del Ayuntamiento, Misa mayor con la Corporación en pleno, numerosos regalos de diversas agrupaciones, Concierto extraordinario en el Teatro Odeón, etc. etc. El pueblo reconocía la enorme labor desarrollada por nuestro hombre.

Y en 1984... la despedida. José decía adiós a su labor con la Banda de Música. Una vida entera dedicada a la misma. Comentaba que se marchaba tranquilo pues veía un risueño futuro para la Banda. Le sucedía José Aº Osoro en la dirección, tras muchos años como subdirector.

Y volvemos al principio. Las notas del Agur Jaunak se apagan. En medio del silencio, el ataúd es introducido en el coche fúnebre. De José nos quedará su recuerdo, un recuerdo imborrable del hombre que luchó como nadie para que Elgoibar siempre tuviera una gran Banda de Música. En la esquila que le dedicó la Banda figuraba “Beti izango zera gure bihotzetan”<sup>1</sup>. Gracias, querido José, gracias de todo corazón por lo que fuiste, por lo que hiciste y por lo que transmitiste. Agur, Maixu.

TXOMIN MUJIKA

<sup>1</sup> Siempre estarás en nuestro corazones.

jai alai





**ELGOIBAR**

UDALA | AYUNTAMIENTO